

# Esker ona WILLIAM F. MACKEY eta JOSHUA. A. FISHMAN soziolinguistei

**Maria-Jose Azurmendi**

*EHU/UPV - Euskal Herriko Unibertsitatea*  
ehu-azurmendi@telefonica.net

Aurten, 2015ean, hil dira W.F. MACKEY Québec-en, eta J.A. FISHMAN Estatu Batuetan, zenbait lan zientifiko aberatsa, teorikoa eta praktikoa, hizkuntzekiko gehienbat, egin ondoren, eta munduan zehar eta baita Euskal Herrian ere oso ezagunak direnak. Horregatik, uste dut bi aditu hauek merezi dutela gure esker ona ematea, eta zabaltzea gure artean. Gauza asko esan daitezke aditu hauekiko, gure arteko zenbaitzuk ere esan ditzakete; baina gure BAT aldizkarian badirudi nik esango ditudala, gauza batzuk bakarrik aukeratuz: Euskal Herriarekin eta Euskararekin zerikusia dutenak gehienbat.

— William Francis MACKEY: Québec-en gehienbat bizi izandakoa, 1918-1-26 / 2015-3-14 tartean bizi, 97 urteekin hil da,

— Joshua Aaron FISHMAN: Estatu Batuetan gehienbat ere bizi izandakoa, 1926-7-18 / 2015-3-1 tartean bizi, 89 urteekin hil da.

Munduko soziolinguisten artean oso ezagunak ziren, munduan zehar asko ibiltzen ziren ere, askotan eskatzen zietelako, guk Euskal Herritik batzuetan egin genuen bezala. 1950-60 hamarkadetan hasi ziren argita-

ratzen, oso momentu onean, 2. Gerra Mundiala bukatu ondoren eman zelako deskolonizazio prozesu zabala (Afrikan, Asian, Polinesian, Errusian, ...), estatu berriak sortu ziren eta horietan nazio ezberdinak sartu ziren, hizkuntza-aniztasuna eta hizkuntza-ukipena gertatuz; egoera nahasi horiek aztertu, eztabaidatu, plangintzatu, eta abar, egin beharra zegoela, eta autore hauek parte hartu zuten hauetako kasu askotan. Mugimendu hau ez zen Euskal Herrian gertatu, Euskal Herria Espainia eta Frantzia estatuek bertan sartuta mantendu zutelako, eta ez zuen ere balio izan harremanak hobetzeko, eta Euskara indartzeko, baizik alderantziz, Frankismo garaian ginelako. Hala ere, 1960 hamarkadan Euskararekiko lortu zena nahiko izan zen (miraria izan al zen?): ikastolak sortu, HABE sortu (helduak euskaldundu, edo alfabetatzeko), Euskal literatura berria sortu (Txillardegí, Saizarbitoria, ...), musika berria ere (“Ez dok Hamahiru” taldea, eta beste batzuk), Euskal kultura berpiztu, eta abar, posible egin genituen.

Giro honetan, sortu zen ere Deustu Unibertsitatean, Donostian, Filosofia eta Letrak ikasketak, 1960 hamarkadan, hasieran lehen bi urteko kurtsoekin, “Komunak” deitzen zirenak; gero beste hiru kurtsoko espezialitate batzuen artean aukeratuz, lizentziatura lortzeko, beste unibertsitate batera joan beharra zegoen<sup>1</sup> (ni Madrilgo Complutense Unibertsitatera joan nintzen); 1970 hamarkadan jarri ziren ia bost urteak, lizentziatura bertan osorik egin ahal izateko. Deustu Unibertsitatean eskatu zidaten bertako irakaslea izatea, eta beste batzuen artean “Soziolinguistika” ikasgaia eman zidaten irakasteko, horrela lehenbiziko aldiz sartu zen ikasgai berri hau Lizentziaturan, eta ni izan nintzen gai horren lehenbiziko irakasle Deustu Unibertsitatean; honek bultzatu ninduen asko ikastera eta aztertzea, Euskararekiko alderdi guztiak, gauraino etengabe. Horregatik, Mackey, Fishman eta beste batzuk ere ezagunak nituen 1970 hamarkadan, eta gehiago geroago.

Nahi dudana orain da bi aditu hauei, Euskararekiko interesatu zirenak, eta beraiekin asko ikasitakoak garenez, gure esker ona ematea, baita gure *BAT Soziolinguistika Aldizkaria* bitartez ere.

## **W.F. MACKKEY**

**I**

Mackey izan zen gehienbat Québec-en zegoen Laval Unibertsitateko irakaslea, baita bertako CIERB Institutuko (*Centre International de Recherche sur le Bilinguisme*) zuzendaria, egokia bai bertara joateko, adibidez estatu berrietako zenbait ministro laguntza eske, nola egiteko

Estatua bakoitzean zituzten hizkuntzekin, edo baita Mackey berak zenbait estatu berrietara joateko eskatuz, helburu berdinarekin. Horrela, elebakartasuna/elebitasuna/eleaniztasuna aztertzen zuen, eztabaidatzen zuen, eta abar. Nik eskatu nion nahi nuela berarekin ikasi eta lana egitea CIERB Institutuan, eta baiezkoa eman zidan, 1980eko 2. sei hilabetekoan “irakasle gonbidatua” bezala onartzuz: nik Euskararekiko hitzaldiak eta mintegiak emateko, eta bertako bere azterketetan parte hartzeko; baita lortu nuen ere bere laguntza nire Doktorego Tesia bide-ratzeko<sup>2</sup>.

Hau jakinda, ez da harritzekoa, 1980 hamarkadan, Mackey berak Euskal Herrira etortzea, EAera (Euskal Autonomi Erkidegoa), orduko Jaur-laritzak eskatuta, nola plangintzatu hizkuntzak hezkuntzan eztabaidatzeko. Mackey-ek berak esanda dakit, helburua zela: 1) Euskara normalizatzea, eta hizkuntza nagusia izaten lortzea, populazioa euskalduntzea, gehienbat hezkuntzaren bitartez, 2) nahiz eta Espainiera ere mantenduz, elebitasun orekatuago bat izaten. Horretarako, Mackey-ek proposatu zien: 1) hasieran, hiru eredu hauek eskoletan sartzea, ahalik eta azkarren (hiru urterekin, orduan): A /B /D ereduak (gauraino mantendu direnak), 2) baina ez betirako, baizik urte gutxi pasatuz lortzen ziren emaitzak aztertu ondoren, nola aldatu behar ziren ereduak proposatuz, sentzu honetan: A/B/D, hasieran (1980 hamarkadan?) à B/D, geroago (1990 hamarkadan?) à D eredu bakarrera pasatuz azkenean (agian 2000 hamarkadan?). Baina denok dakigu ez dela horrelakorik gertatu (zergatik?).

Bestalde, Mackey-eri interesatzen zitzaion Euskararekiko bilakaera ezagutzea, eta Euskal Herriarekin harremanak mantentzea, eta horren adierazle dira: 1) bai eskaini zidala artikulu bat nik idaztea, Euskararekiko, beren aldizkari batean, 2) baita parte hartu zuela gure bi argitalpen nagusitan:

- *Langue et Société/Language and Society*, 4, 1981. Commissaire aux Langues Officielles. Québec. Maria-Jose Azurmendi: Le Pays Basque Espagnol: du fond des âges, un voix interpelle le présent /The Spanish Basques: A lesson in survival. 19-22.

- Gurean egin zen Euskararekiko lehen handbook modukoa, 1986 urtean argitaratua, parte hartu zutelarik 40 aditu, gehienak euskaldunak eta beren lanak Euskaraz eginak. William F. MACKEY-ek parte hartu zuen honako lanarekin: Planification Linguistique, Politique Langagière et utilisation sociale des langues. In Jose Ignacio Ruiz de Olabuenaga

eta J. Agustin Ozamiz (argitaratzaileak), *Hizkuntza Minorizatuen Soziologia /Sociología de Lenguas Minorizadas*. Ttartalo ed.. 351-365.

- II. Euskal Mundu-Biltzarrean (lehengoa izan zena ere, EAE garaian) parte hartu zuen beste lan batekin: W.F. MACKEY (1988). L'Ekologie linguistique des sociétés expérimentales. In *II. Euskal Mundu-Biltzarra /II Congreso Mundial Vasco. II. Atala: Hizkuntza eta Gizartea /Area II: Lengua y Sociedad. II. Alea /Tomo II.: EUSKARA BILTZARRA /CONGRESO DE LA LENGUA VASCA*. Eusko Jaurlaritz /Gobierno Vasco. 111-122.

## J.A. FISHMAN

### I

Fishman oraindik ezagunagoa da gure artean, aipatuagoa ere bai. Aditu honek ere asko ibili da batetik bestera, mundu-mailako harremanak izan ditu, eta guregana ere behin baino gehiagotan etorria da. Ausarta izanda, esango nuke ez bakarrik soziolinguista dela, baizik baita hizkuntzaren edo hizkuntzen soziologoa-politologoa... ere badela. Bestalde, berarekin harremanak luzeak izan dira, ia orain artekoak, gure artean Euskararekiko soziolinguistika gertuko bat izanez.

— FISHMAN-ek ere parte hartu zuen aipatutako *II. Euskal Mundu-Biltzarra /II Congreso Mundial Vasco* ekitaldian (1988), J.A. FISHMAN eta F.R. SOLANO (batera), lan honekin: Factores sociolingüísticos en la adquisición del Euskara en el País Vasco. 185-202. Bertan gure arteko aditu asko parte hartu zuten ere, horien artean nire lana jasotzen da, M.-J. Azurmendi: *Psicosociolingüística del contacto de lenguas*, 311-346, eta bertan aipatzen ditut bai Mackey, baita Fishman ere.

— Lehenago ere, Fishman aipatua zen gure arteko argitalpenetan. Adibidez: *SIADeco* taldeak koordinatuta, Euskaltzaindiak argitaratu zuen, 1977 urtean: *Euskararen liburu zuria /El libro blanco del euskara*. Bertako azkeneko lana nirea da, Maria-Jose Azurmendi: *Elebitasuna /Bilingüismo*, eta jadanik Fishman aipatzen dut.

— Euskararekiko interesatua zegoelako, nahiko erraza izan zaigu Fishman Euskal Herrira etortzea, guk eskatuta. Horren ondorioa da Euskaltzaindiak "Euskaltzaina" Fishman egitea (2007), adibidez.

— Esango nuke, gure artean badaudela soziolinguista batzuk bereziki Fishman erabili dutena Euskararekiko eztabaidetan, edo azterketetan, adibidez Mikel Zalbide. Aipatuko ditut hemen aditu honen bi lan, biak Azpeitiko Euskara Patronatua-Erabili.eus elkartearen jasotakoak: 1) Joshua A.

Fishman-en RLS edo HINBE - ([http://www.Erabili.eus/zer\\_berri/muinetik/1086087086](http://www.Erabili.eus/zer_berri/muinetik/1086087086)), 2) Ahuldutako Hizkuntza Indarberritzea: teoriak zer dio? – ([http://www.erabili.eus/zer\\_berri/muinetik/1056974834](http://www.erabili.eus/zer_berri/muinetik/1056974834)), oso interesgarriak direnak gu denontzako.

— Baina harreman handiagoa berarekin izan da argitalpen bitartez: 1) bai Fishman berak zuzentzen eta editatzen zuen aldizkariarekin lotuz: *International Journal of the Sociology of Language (IJSL)*, 2) baita berak bideratzen zituen liburuen bitartez ere. Adibidez:

— J.A. Fishman (ed.) (2001). *Can threatened languages be saved? Reversing Language Shift, Revisited: A 21st Century Perspective*. Maria-Jose Azurmendi, Erramun Bachoc and Francisca Zabaleta: *Reversing Language Shift: The Case of Basque*. Clevedon: Multilingual Matters. 234-259. (Gurean, liburu hau oso aipatua dena, Euskararen biziberritzearen eredia lantzen duelako, baina bertako gure Euskararekiko lana gutxitan aipatzen dena, zergatik hori?).

— *IJSL*, 157, 2002. A. Hudson aditua zen ale monografikoaren Issue Ed.: *Outline of a Theory of Diglossia*. Berriz ere gonbidatu zidan Fishmanek parte hartzera, Comentarios izeneko artikulua idatziz. 49-58.

— *IJSL* aldizkarian, garrantzitsuena izan zen Fishmanek eskeini zigunean Euskararekiko ale monografiko oso bat idaztea, pozik jaso nuena, eta genuena. Maria-Jose Azurmendi and Iñaki Martínez de Luna (Issue Eds.). *The Case of Basque: From the Past Toward the Future*. 174, 2005. Alearen neurrian sartzeko prestatu genituen artikulua gehiegizkoak ziren, eta gai batzuk aukeratu behar izan genituen. Horregatik, beste artikuluetarako jarraipena eginez, Soziolinguistika Klusterrak argitaratu zituen, honako liburua ateraz: Maria-Jose Azurmendi and Iñaki Martínez de Luna (eds.) (2006). *The Case of Basque: Past, Present and Future*. Bi lan hauetan gure arteko soziolinguista asko parte hartu zuten; gure ustez, zaiatu ginen Euskararekiko alderdi ia guztiak lantzen, eguneko egoeraren argazkia, edo diagnosis, eman nahian. (Antzeko zerbait lehenago ere egin ziren: 1) SIADECO elkarteko adituak (1979), *Hizkuntz Borroka Euskal Herrian / Conflictu lingüístico en Euskadi*. Euskaltzaindia; 2) Jose Ignacio Ruiz de Olabuenaga eta J. Agustín Ozamiz (1986); 3) *II. Euskal Mundu-Biltzarra / II Congreso Mundial Vasco. Euskara Biltzarra / Congreso de la Lengua Vasca. II. Atala: Hizkuntza eta Gizartea / Area II: Lengua y Sociedad. II. Alea / Tomo II* (1988), Eusko Jaurlaritzak antolatu eta argitaratutakoa, nazioarteko mailakoa izan zena).

— Honako liburuan ere parte hartu dugu, beti bezala Fishmanek eskeiniz: Joshua A. Fishman and Ofelia García (eds.) (2011). *Handbook of Language and Ethnic Identity. Vol.2: The Success-Failure Continuum in Language and Ethnic Identity Efforts*. Oxford University Press. Maria-Jose Azurmendi and Iñaki Martínez de Luna: Success-Failure Continuum of Euskara in the Basque Country. 323-335. Liburu berezia, garrantzitsua, identitate etnikoari zentralitate handia ematen diona, gurea bezalako Euskara hizkuntza indarbertzeko garaian. Gai honi buruz, Euskararekiko identitate etnolinguistikoa, edo etnosoziala, asko aztertu dut eta dugu, bertan Fishman-en ideiak ere sartuz, baina gehiegi dira hemen aipatzeko. Hala ere, hau aitortzea nahi dut, beste modu bat delako Fishman-eri ere nire eta gure esker onak adierazteko.<sup>3</sup> ●

## OHARRAK

1. Aprobetxatu nahi dut Deustu Unibertsitateari eskerrak emateko, Donostian ere Filosofia eta Letrak jartzeagatik, ni bezalako gutxi izan ginelako lizentziatuak izatera lortu genuena (mirari on bat bezala beti bizi izan dudana gertaera); hau 1960 hamarkadan gertatu zen. Gero, 1970 hamarkadan irakaslea izan nintzen bertan, besteak beste “Soziolinguistika” ikasgaia erakutsiz, lehen aldiz izan zela Unibertsitatean. Ordukoa da honako liburua: William F. Mackey (1976). *Bilingüismo et contact des langues*. Paris: Klincksieck, nik asko erabili dudana.
2. Nire Doktorego Tesia: Maria-Jose Azurmendi (1982). *Elaboración de un Modelo para la descripción sociolingüística del Bilingüismo y su aplicación parcial en la Comarca de San Sebastián*, 2 vols.. (Tesis Doctoral número 170/84 de la Universidad Complutense, Premio Extraordinario de Doctor en 1984). Caja de Ahorros Provincial de Gipuzkoak argitaratu zuen 1983ean, eta Universidad Complutense berak ere 1984ean. Berrero ere nire esker ona W.F. Mackey irakasleari, bere bultzadagatik nire Tesian, eta ni Soziolinguistikarekin maitemintzeagatik ere.
3. Bukatzeko, uste dut egokia izan daitekeela gure artean sortu diren Soziolinguistikaren Eskuliburu orokor modukoak, beren gaien zabalkundea errazteko: 1) Jose M. Sanchez Carrion, “Txepetx” (1987). *Un Futuro para nuestro Pasado. Claves de la recuperación del Euskara y teoría social de las lenguas*. ELKAR; 2) Estibaliz Amorrortu (2003). *Basque Sociolinguistics. Language, Society and Culture*. Center for Basque Studies, University of Nevada, Reno; 3) Arkaitz Zarraga, Jean-Baptiste Coyos, Jone M. Hernandez, Lionel Joly, Imanol Larrea, Loren V. Martinez, Belen Uranga eta Paul Bilbao (2010). Vitoria-Gasteiz, Soziolinguistika Klusterra eta Eusko Jaurilaritza; 4) Maria-Jose Azurmendi (2000). *Psicosociolingüística*. Euskal Herriko Unibertsitatea / Universidad del País Vasco (EHU/UPV) (632 or.); helburu ausarta izan zuena, ohizko soziolinguistikatik areago joan nahiez, gure artean aipatzen ez ziren alderdiak adierazi nahian, gehienbat Gizarte-Psikologia ikuspegitik begiraturaz. Mackey eta Fishman aipatzen dira, noski, liburu hauetan, beste aditu askoren artean. 5) Uste dut aipatu beharrekoa ere dela HIZNET izeneko ikastaro soziolinguistikoa, UPV/EHU eta Eusko Ikaskuntza artean antolatzen dena, eta Iñaki Martínez de Luna zuzendaria dena, bertan ere uste dut Mackey eta Fishman aipatuak izango direlako.